

BOTEREA, DISKURTSOA ETA SUBJEKTIBOTASUNA. NIKARAGUARREN MIGRAZIO ESPERIENTZIA NAFARROAN

Tesiaren egilea: Txuri Ollo Gorriti

Unibertsitatea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)

Saila: Antropologia Saila

Tesi-zuzendaria: Kepa Fernandez de Larrinoa

Tesiaren laburpena:

Migrazioa konstante bat da gizadiaren historian. Beste herri askoren antzera, euskaldunon herria ere emigrantea izan da garai batzuetan; eta, gaur egun, gertakari horien erakusgarri bizidunak topa ditzakegu planetako leku askotan. Mugikortasun geografikoak garai guztietan eta toki guztietan gertatu arren, azken hamarkadetakoak eta hemengoak hainbat berezitasun ditu. Migrazio-ereduak ezin ditugu bereizi estatu-nazioaren modu espezifikoak birformulatzen dituzten merkatu-esparruak eratzeko dinamikatik eta ekonomiaren globalizazioaren dinamikatik.

Nikaraguan kolonizatuak izan ziren eta neokolonizazioaren menpe jarraitzen duten populazioek, beren herrialdean burututako borrokek fruiturik eman ez dutenean, beren egoera ekonomiko eta soziala hobetzeko, kolonizatzaile horiekin dituzten lokarriei jarraituz migratzen dute. Politika neoliberalaren menpe dagoen herri txiki honetan, beste askotan bezala, desoreka ekonomiko handiak sortu eta mantentzen dira, eta horrek biztanleak jatorriko herrialdetik aterarazi ditu, beren herrialdean betoa jarria duten aukeren bila.

Lan-merkatuak askotariko mekanismoak erabiltzen ditu, eskulana kostu ekonomiko ahalik baxuenean erakarri ahal izateko eta migratzaileen irrikak murrizteko. Zelaketa, diziplina eta zigoren bitartez gorputz otzanak eraikitzen dira gure jendartean, boterea erabiliz; eta, kanpotik etorri berriekin, mekanismo zehatzak erabili dira otzantasan hori gorputzarazteko. Atzeritarren Legea izango da hein handi batean immigranteen eskubideen murrizketa dakarrena, bazterketa politikoa eta gizarte-segregazioa. Horrek sortu ditu paperik gabekoak, «legez kanpokoak» deituak, eta ondorioz eskubiderik gabe gelditu direnak. Egoera horrek nortasuna kentzen dio immigranteari, baliogabetu egiten du, gizagabetu. Eta horren ondorioz, bazterkeria naturalizatu eginen da.

Kolonizazioak markatu ditu Mendebaldeko pentsamoldea eta kultura. Horrek gutxiagotasun-egoera batera murriztu zuen «bestea», «gu»re tutoretzaren beharra zuen menpeko izaki izatera murriztuz. Diferentziak azpimarratu ziren, etnozentrismoa areagotuz. Ondoren, diferentzia horiek, balorazio afektibo eta ideologikoak bultzatuta, desberdintasun bihurtu ziren, prestigio gehiago edo gutxiagoko taldeak sortuz eta jarrera baztertzailerekin erantzunez.

Erakunde desberdinen eta komunikabide batzuen boterearen erabilerak diskriminaziozko testuinguru bat sortu du, immigranteenganako jarrera arrazistak bulztatuz eta sentimendu negatiboak sustatuz. Modu horretan, kolonizazioak lehenik, neokolonizazioak ondoren, eta immigrazioak jarraian, mekanismo desberdinen bidez, boterea erabiltzea legezkotzen duen gizarte baten onarpena lortu dute.

Ikertu den taldearen migrazio-esperientziak, oro har, balantze positiboa du, baina aipatzekoa da ez dagoela gatazka eta bidegabekerietatik libre. Emaizak ez dira judizio kategorikoak, baizik eta zenbait pertsonak beren ibilbidean aurkitu dituzten baldintzen inguruko gogoetak; pertsona horiek, hain zuzen, mugatuak dituzte beren asmoak beste leku batzuetan jaio izanagatik, eta, horretaz gainera, gizarte berrian integrazio-/bazterketa-prozesuei aurre egin behar izaten diete. Egungo ziurgabetasunak eta abiadura handian gertatzen ari diren aldaketek gure inguruan gertatzen ari dena ulertu nahi izatera garamatzate eta horretara bideratua egon da lan hau.